

HAZTE

400

2009ko maiatza
zenb.

3,10 € (BEZ barne)

euskara ikasten ari
garenon aldizkaria



EDU MURUAMENDIARAZ:

"Euskal dantza tradizionaletik
abiatuta, bide berriak ireki ditu
Aukeran konpainiak"

ALE HONEKIN,
SAGU-AZPIKOA
OPARI

Gaurgero:
Ikasbilen euskara-
azterketak on-line

Sekuentzia
didaktikoa:
Mezu elektronikoa
idazten

Musika:
Akatz: "Bilbon ere
musika tropikala
egiten da"

Erdian:
1., 2. eta 3.
mailako
azterketa-ereduak



EDU MURUAMENDIARAZ:

"Euskal dantza tradizionaletik
abiatuta, bide berriak ireki ditu
Aukeran konpainiak"

Testua: Gorka Etxabe Otadui (Arteman Komunikazioa)
Argazkiak: Josetxo Arantxabal

18 Edu Muruamendiaraz (Bergara, 1964) dantza-ikasketak egitera joan zen Donostiara 18 urte zituela eta bertan bizi da egun. Dantza da Eduren pasioa eta familia, berriz, bere bizitzaren **enbor** nagusia. Gaztetatik dantza-txapelketa ugaritan parte hartutakoa da eta hamaika lehiaketa irabazi ditu urte hauetan guztietan. 1996an Euskadiko dantza-txapelketa irabazi ondoren, eta sari guztiak eskuratuta, koreografia berriak egiten hasi zen Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza bati esker. Orduan sortu zuen *Aukeran* dantza-konpainia, 1997an. "Nire asmoa da profesionaltasunerantz **jauzi egitea**, eta Euskal Herrian dantza-arloak aurrera egin badu ere, oraindik bide luzea du aurretik".

Aukeran dantza-konpainiak hamaika urte bete ditu. Zein izan da zuen taldearen bilakaera?

Hiru **ikuskizun** egin ditugu hamaika urtetan, eta iaz egin genuen hamargarren urteurreneko ikuskizun berezia Donostiako Victoria Eugenia antzokian. **Sekulako arrakasta** izan genuen eta oraindik ere zenbait herritan plazaratzen dugu lan hori. Orain ikuskizun berri bat prestatzen dihardugu, ekainean aurkeztuko duguna. Euskal dantza tradizionalan oinarritutako lan berri bat izango da, dantza **garaikidea** eta moderno **uztartuko** dituen.

Zer aldatu da urte horietan guztietan dantza arloan Euskal Herrian?

Nik esango nuke asko aldatu dela. Dantza tradizionala beste era batera ikusten da. Talde asko ari da ikuskizunak prestatzen, **antzokietan** aurkezten. Eta gero eta dantzari gehiago dago. Euskal dantza tradizionalari beste dimentsio bat eman diogu guztion artean. Antzokietan sartu gara eta errekonozimendu handiagoa dugu orain. **Ikuspegi** berritzailea eskertzen du ikusleak eta dantza-konpainiek eta taldeek gero eta gehiago **arriskatzen** dugu.

Euskal Herriko ikusleak ba al du ohiturarik horrelako dantza ulertzeko?

Orain hamabi urte hasi nintzen gauza berriak egiten, koreografia moderno eta garaikideak sortzen, eta hasieran sekulako kritikak jaso nituen. Nire **sormen**-prozesuan euskal dantza tradizionala da iturri nagusi, baina arriskatzea gustatzen zait eta

Edu Muruamendiaraz eta *Aukeran* dantza-konpainiako kideak entseguan.



ANTZOKI.- Teatro (edificio, sala). Théâtre (salle).
ARRISKATU.- Arriskuan jarri. Arriesgar. Risquer de.
ENBOR.- Tronco. Tronc.
ENTSEGU.- Ensayo. Répétition.
GARAIKIDE.- Contemporáneo/a. Contemporain/e.
GARATU.- Desarrollar. Développer.
IGARRI.- Nabaritu. Notar. Noter, se rendre compte.
IKUSKIZUN.- Emanaldia. Espectáculo. Spectacle.
IKUSPEGI.- Perspectiva. Perspective.
ISLATU.- Reflejar. Réfléter.
JAUZI EGIN.- Saltar. Sauter.
MUNTAIA.- Montaje. Montage.
NABARMEN.- Evidente, patente. Evident.
SEKULAKO ARRAKASTA.- Éxito enorme. Grand succès.
SORMEN.- Creatividad. Créativité.
UZTARTU.- Lotu. Unir. Unir.

ikusleek gero eta gehiago eskertzen dute hori. Bide horrek jarraitzaile ugari ditu gaur egun.

Euskal dantza tradizionala aipatzen duzu behin eta berriro. Dantza-arloan bidea egiteko aukera eskaintzen al du?

Dantza tradizionalan hazitako dantzari askok dihardute gaur egun dantza-arloan munduan zehar. Iker Murillo eta Jon Agirretxe dira horietako bi. Profesional izatera iritsi dira, eta munduan zehar ari dira lanean dantza tradizionaletik abiatuta, dantza klasikoa eta garaikidea eginez. Aukera ugari eskaintzen ditu gure dantza tradizionalak.

Gaur egun *Aukeran* dantza-konpainia zertan ari da?

Aukeran dantza-konpainiako dantzari guztiak dantza tradizionaletik gatoz, eta orain arteko ikuskizunetan **nabarmena** izan da eragin hori. Nahastu egiten ditugu dantza tradizionala, klasikoa eta garaikidea. Musikak ere garrantzi handia izaten du gure ikuskizunetan eta jantzi bereziak erabiltzen ditugu. Horiek dira gure **muntaien** oinarritzko ezaugarriak, baina orain lantzen ari garen lana desberdina izango da. Orain arte mitologia-tik abiatu baldi bagara ere, ekainean aurkeztuko dugun ikuskizunak beste abiapuntu bat izango du.

Aurreratuko al diguzu zerbait?

"Gernika" izango da ikuskizunaren izenburua. Gernikaren bonbardaketa **islatzen** saiaturako gara, *Aukeran* dantza-konpainiaren estiloan beti ere.

Nola sortu zen ideia?

ABE –Asociación Ballet Bilbao– elkartetik galdetu ziguten ea parte hartu nahi genuen. Igor Yebra dantzariak ekin zion egitasmo honi. Orain bere aita da antolatzaile. Gernikaren gaineko ideia bat zuela esan zigun eta guk **garatzea** nahi zuela. Gidoi berezia, musika indartsua eta *Aukeran* konpainiaren estiloan landutako koreografia izango ditu lan berriak. Horretan ari gara buru-belarri une honetan, koreografia hori prestatzen. Berezia izango da, besteak beste, hildakoek kontatuko dutelako Gernikako bonbardaketaren historia.

Noiz aurkeztuko duzue?

Ekainaren 10ean aurkeztuko dugu Euskalduna Jauregian, Bilbon, baina ez dugu koreografia osoa erakutsiko, tarte bat baizik. Ondoren, Donostiako Antzerki Ferian plazaratuko dugu berriro ere, eta urriaren 31n egingo dugu aurkezpen ofiziala, Gernikan.

Gertuko beste proiekturik ba al duzue?

Bai. Azaroaren 9tik 14ra Iparraldean antolatzen ari diren ikuskizun berezi batean parte hartuko dugu. Beraz, proiektuak izan baditugu, baina orduak falta zaizkigu **entseguak** egiteko. Ez gara profesionalak eta **igarri** egiten da. Orduz kanpo egiten